

ona eta atsegina

||| Ainhoa Arteta soprano tolosarrak zabaldu du sagardo denboraldia.

tuen proiektu guztietan parte hartzeko». Horien artean dago sagardo etxea. Oraingoz, turismoa eta sagardoa bultzatzeko proiektu bat besterik ez da. Murgia jauregian ipiniko litzateke, eta sagardozaleak eta Udala hasi dira horretan lanean. Horren inguruko xehetasunak www.sagardun.com helbidean ikus daitezke.

Uzta onak sagardoa ona izatea ahalbidetzen du. Euskal Herrian 15.000.000 litro inguru egin dira aurtun, horietatik ia erdia Astigaragan. Sagarrak dituen ezaugarriak kontuan hartuta, aurtengo sagardoa osatua eta bukaera freskagarria duena izango da. Mikatz zapore elegantea lortu dute amaieran. Gainera, hotza azaró hasieran sartu zen upeltegietan. Hori dela eta, irakinaldi mantsoa eta kalitatezkoa lortu dute sagardogileek.

Lehengaiak ez ezik, azken urteetan sagardogintzan eman den bilakaera teknologikoak zeresan handia du sagardoaren kalitate onean. Hondarra kentzeko prozesuak irakiten utzitako muztioa hobetu du, gordetzeko garaian sortzen diren hondar ilunak kentzen baititu. Halaber, modu kontrolatu batean irakitean, sagardoaren indar aromatikoa areagotu du.

Illo horretan, sagardogintzaren mundua «lune erabakigarri batean» dagoela nabarmendu zuen Eusko Jaurlaritzako ordezkari Asier Albizuk. «Duela lau urte akordio bat sinatu genuen sagardotegiek beren azpiegiturak egokitu eta hobetzeko. Baina oraindik lan asko dago egiteko. Izan ere, produktu on bat izan arren, kontsumitzaileek gehiago eskatzen dute».

Orain, bezeroek zer esango duten zain daude sagardogileak. Horretarako, sagardoa dastatzeko fitxa bat egin dute. Bertan, sagardoa probatzean zer hartu berra duen kontuan nabarmentzen da: «Ikusi, usaindu eta dastatu egin behar da», azaldu zuen Jose Angel Goñik.

Ainhoa Arteta: «Aurtengo sagardoa oso ona dago»

Andoni Egaña, Julian Retegi, Juan Mari Arzak, Pedro Miguel Etxenike, Joane Somarriba... Pertsonaia ezagun askok izan dute dute sagardo denboraldi zabaltzeko aukera azken urteetan. Aurtun, Ainhoa Artea sopranoak izan du ohore hori. Tolosarrak makina bat sari jaso ditu, baina hau berezia zela aitortu zuen: «Niretzat opari bat da sagardo denboraldia zabaltzea», zioen sagardogileek oparitutako platera eskuetan zuela. Artetak oso gustuko du sagardoa: «Nire etxean beti dago sagardoa, eta kanpotik lagunen bat datorrenean, beti eramaten dut sagardotegira. Gurea den produktu bat da, eta ni oso harro nago. Askok gustatzen zait».

Petritegi sagardotegian egin zen denboraldiko lehen txotxa. Txalaparta entzun ondoren, dantzari batek aureskuia dantzatu zuen. Ondoren, barrika zabaldu zuten Ainhoa Artetak lehen sagardoa probatzeko. «Gure sagardo berria», esan zuen Artetak. Baina ezin izan zuen sagardoa dastatu, argazkilariek berriro erreplikatzeko eskatu ziotelako: «Ez dut probatu!», zioen barrez. Bigarrena balekoa izan zen: «Oso ona dago. Txuleta, gazta eta intxaur batzuekin bikaina», aitortu zigun han bildutako kazetari andanari. Bukatzeke, Andoni Egañak eta Sebastian Lizasok bertso bana kantatu zuten. Ondoren bazkaria egin zuten Petritegin.



||| Aurtengo sagardoa ona eta freskoa da.